



2023/2024 denboraldia

## 26. ZIRKULARRA (2023-10-18an EGUNERATUA)

\*2023ko urriaren 18an 3. puntua aldatu da.

### MUTILEN INFANTIL HANDI LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Ohorezko Infantilen lehiaketa antolatzen du. Bertan parte hartuko duten taldeak, aldez aurretik gonbidatuak izango dira Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren foru Aginduaren bitartez.

#### 1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA		GRUPO 2 MULTZOA	
1	BEHOBIA C.D.	1	ANTIGUOKO K.E.
2	BETI ONA C.D.	2	AÑORGA K.K.E.
3	HONDARRIBIA F.E.	3	ARRUPE CHAMINADE C.D.D.F.
4	QIARTZUN K.E.	4	INTERNACIONAL C.D.
5	REAL UNION CLUB SAD	5	LENGOKOAK S.D.
6	SAN MARCIAL C.D.	6	IGELTEGI DE DONOSTIA C.F.
7	TOURING C.D.	7	VASCONIA C.D.

GRUPO 3 MULTZOA		GRUPO 4 MULTZOA	
1	URNETA C.D.	1	BILLABONA F.K.E.
2	OSTADAR S.K.T.	2	DANENA K.E.
3	REAL SOCIEDAD S.A.D.	3	TOLOSA C.F.
4	HERNANI C.D.	4	ORDIZA K.E.
5	ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	5	BEASAIN S.D.
6	MARTUTENE KE	6	LAZKAO K.E.
7	MUNDAIZ S.C.D.	7	EUSKALDUNA ANDOAINARRA S.D.
8	KOSTKAS MARIAREN BIHOTZA C.D.		

GRUPO 5 MULTZOA		GRUPO 6 MULTZOA	
1	LAGUNONAK C.D.	1	MONDRAGON C.F.
2	ORIOKO F.T.	2	ARETXABAETA K.E. UDA
3	ANAITASUNA C.D.	3	ALOÑA MENDI K.E.
4	ZARAUTZ K.E.	4	BERGARAK E.
5	ZUMAIKO F.T.	5	EIBAR S.A.D.
6	AMAIKAK BAT K.E.	6	ILINTXA S.D.
7	ELGOBAR C.D.	7	UROLA K.E.



## **2.LEHIAKETA SISTEMA**

Infantil Handi Mailako txapelketa **43 taldek** osatzen dute. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta buelta bikoitzera (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

1. **FASEA:** 7 taldeko bost multzotan ( $5 \times 7 = 35$  talde) eta 8 taldetako multzo bat, itzuli bakarrera (7 jardunaldi).

### **2. FASEA:**

**A) Txapeldunen fasea:** multzo bakoitzeko **lehen lau sailkatuek** ( $4 \times 6 = 24$ ) jokatuko dute itzuli bikoitzera, 12 taldeko bi multzotan banatuta (22 jardunaldi). Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute partidu bakarrera eta zelai neutroan. Bigarren sailkatuek 3-4 postua jokatuko dute partida bakarrera eta zelai neutroan, Euskadiko Infantil Mailako Errendimenduko Eskolarteko Jokoetan Gipuzkoa ordezkatzeko duten hiru taldeak zehazteko.

### **B) Gipuzkoako Kopa:**

Besteek, itzuli bikoitzera jokatuko dute 19 taldeek, 9 taldeko multzo batean eta 10 taldeko multzo batean banaturik

Multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuek, partida bakarrera eta ondoen sailkatu denaren etxean jokatuko dituzte final-laurdenak. Irabazleek final-erdiak jokatuko dituzte eta hauen garaileek partida bakarreko finala jokatuko dute zelai neutroan, Gipuzkoako Kopako txapelduna izendatzeko.

## **3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partiden iraupena 70 minutukoa da, 35 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedenaldea, eta zazpi aldaketa egin ahalko dira. Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalaria guztiak partidan ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Partiduko hamaikakoan agertzen diren jokalaria, gutxienez 20 minutu jokatu beharko ditu eta zelaira sartzen den azken jokalaria ezingo ditu 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15.minutua baino beranduago, ezinbesteko arrazoiak izan ezik. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da.

## **4.DEIALDIA**

Batzar Nagusian heldutako akordioaren arabera, taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partidan bertan egon beharko du (gehienez 18 jokalaria). Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat



emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

## **5.JOKALARIAK**

2010ean jaiotako jokalariz osaturiko taldeak, gehienez lehen urteko (2011) 4 jokalaria eukitzeko aukerarekin.

## **6.LIZENTZIAK**

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek bi erakundeen logotipoak izango dituen eskola-lizentzia izango dute, eta federazioan bertan bideratuko dira, lehiaketa hasi aurretik "Kirol lizentziak" sistemaren bidez, azterketa medikua eta mutualitateko alta egiaztatu ondoren.

Ohorezko Infantil Mailako lizentzia dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, eta ezin izango dute egin Infantil Txiki edo Infantilen 1. Mailako lizentzia dutenek. Aurrekoa betetzen ez bada, bidegabeko lerrokatze gisa zigortuko da.

Talde bakoitzak gehienez 20 lizentzia izango ditu. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

## **7. BALOIA**

Baloia 5 zenbakikoa izango da, eta ez da 4. zenbakiko baloirik onartuko, ezta areto-futbolekoa ere.

## **8.ORDUTEGIAK**

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

## **9.XEDAPEN OROKORRAK**

### **Izen-ematea:**

Izen-ematea Federazioko Intranetetik egingo da.



## **10. OHOREZKO INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN**

"Bigarren urteko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarteko infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten. 6. Zirkularrean ikus daitekeen bezala, ondorengo onartzen da:

Infantil Handi eta Emakumezkoen Infantil F-11ko haur batek parte hartu dezake kadete kategorian (lehiaketa federatua) Lehengo Kadete mailako talde bat osatzeko.

Gehienez, infantil mailako 4 jokalaria baimentzen dira edo 18 jokalariko gutxienekoa osatu artekoak

- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

## **11.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK**

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan jokatu.

## **12.DIZIPLINA ARAUDIA**

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAN zehaztutakoarekin bat etorriz, diziplina-eskubidea honela gauzatzen da:

- a) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketaz arduratzen den kirol-federazioko diziplina-batzordeari.
- b) Bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari; bere erabakiak administrazio-bidearekin amaituko du, eta aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, aplikatu beharreko jurisdikzio-arauei arabera.



#### **14. BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2023ko urriaren 18a**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General